

La mente moral

Cómo la naturaleza ha desarrollado nuestro sentido del bien y del mal

MARC D. HAUSER

Bartzelona: Paidós, 2008, 573 or.*

Liburuaren jatorrizko bertsioa, ingelesezkoa, 2006koa da, eta izenburu honekin agertu zen: *Moral Minds. How nature designed our universal sense of right and wrong*. Goian gaztelaniazko itzulpenaren erreferentzia eman dut arrazoi simple bategatik: bertsio horretan irakurria dut liburua. Dena dela, lan honen bukaeran ikusiko denez, zalantzazko zenbait kasutan kontuan hartu dut ingelesezko testua ere.

Marc D. Hauser psikologiako irakaslea eta Eboluzio Kognitiboko Labo-ategiko zuzendaria da Harvard Unibertsitatean. Atxikia dagoen psikologia-joera edo -ikusmoldea kontuan hartzen bada, psikologo eboluzionista da bera; bestela esateko, eboluzioaren teoriatik datozen kontzeptuak erabiltzen ditu psikologiako gai eta arazoei heltzeko. Hemen hizpide dugun liburua argitaratu arte, autorea primateen kognizioari eta gizarte-portaerari buruzko azterketa esperimentalengatik zen ezaguna. Horrelako lanen berri ematen duen liburu bat, ingelesez *Wild Minds. What animals really think*, asko ez dela euskarara ere itzulia izan da izenburu honekin: *Gogo basatiak. Zer duten animaliek benetan buruan*. Artetik esateko, ez dakit zergatik itzuli den itzuli den bezala ingelesezko *think* hitza. *Moral Minds* liburuan garbi ikusten da Hauser beste ikerketa arlo batean buru-belarri murgildua dagoela orain, filosofia eta psikologia moralaren arloan hain zuzen ere, moraltasunaren zientzia eraikitzea duela helburu (26 or.).¹ Egia esan, moraltasunaren auziak lehenagotik ere kezkatzen zuen autorea: 2000. urteko *Wild Minds* liburuan kapitulu bat eskaini zien, liburuko luzeena, “sen moralei”. Hor, ordea, animalien sen moralaz ari zen; orain, berriz, gizakion iritzi eta intuizio moralak axola zaizkio.

* [Liburu-kritika honen lehenagoko bertsioa hemen argitaratu zen, 2009an: *Gogoa* 9 (1): 131-138.]

¹ Besterik esaten ez bada, parentesi arteko orrialdeak gaztelaniazko itzulpenari dagozkio.

Psikologia moralaren egitekoa giza iritzi edo judizio moralen azpian dau- den mekanismoak azaltzea da. Egiteko hori hartu du bere gain Hauserrek: giza judizio eta intuizio moralen etorkia non dagoen ezartzea. *Moral Minds* liburuaren azpigituluak argi uzten du autorearen ustez non bilatu behar di- ren gure judizio moralen oinarriak: naturan, eta ez kulturan. Lehenbiziko ka- pituluaren hasieran, hainbat profesional aipatu ondoren —legelariak, medi- kuak, militarrek, enpresaburuak eta abar—, horien guztien ikuspegia honako hau dela dio: “gure judizio moralen kausa arrazoibide moral kontzientea da, oinarria printzipio esplizitu batzuetan duena” (25 or.). Hauser ez dator bat nagusi den ikuspegi horrekin, horren atzean ilusio bat baitago beraren iri- tziz: uste izatea, printzipio esplizitu batzuetatik abiatuz ohartuki arrazoitzeko gai garenez, printzipio horiek direla gure erabaki moralen iturburuak. Hauserrek, liburuan, honako tesi hau nahi du azaldu: giza moralitasunaren oinarria gramatika unibertsal bat dela, hizkuntzalari generatibistek giza hizkuntzaren zimendu eta oinarritzat daukatena antzekoa.

Hauserrek berak ohartarazten duenez, ez da bera izan Chomskyren hiz- kuntzaren teoriatik kognizio moralaren teoriara jauzi egin duen lehena. Analogia hori John Rawls filosofo politikoak, John Mikhail legelariak eta Chomskyk berak proposatua da. Hauserren lana agertu eta gero, eta lan hori ezertarako aipatu gabe, Gerd Gigerenzer (2008) psikologoak ere gramatika moralaren ideia jaurti du, tesi moduan erantsiz ezen gizakiek, hizkuntzarako bezalaxe, moralitasunerako ere sortzetiko gaitasuna dutela. Dena dela, *Moral Minds* da, oraingoz, ideia horri eskaini zaion arreta luze eta zabal bakarra.

Hauserrek bere gain hartzen du Chomskyk hizkuntzalaritzan erabilitako es- trategia moralitasunaren arlora eramateko lana. Hizkuntzalaritza sortzailearen abiapuntuan honako egitate hau dago: edozein giza hizkuntzatan mintzatzen direnak gai dira lehenago behin ere entzun edo irakurri ez dituzten esaldi berriak ulertzeko eta sortzeko. Chomskyren arabera, edozein hiztunek duen gaita- sun hori, esaldi berriak ulertzeko eta sortzeko, bere hizkuntzaren gramatikaren jakite ezjakinetik dator, hau da, badakiela jakitun ez dagoen gramatika hori jaki- tetik. Bestalde, haur guztiak moldatzen dira beren hizkuntzaz jabetzeko, jasotzen duten lagina mugatua eta osatugabea izan arren. “Estimuluaren pobretasuna” esaten zaio fenomeno horri. Fenomeno hori dela eta, Chomskyk uste du hau- rra, jaiotzean, “gramatika unibertsal” baten jabe dela, eta horri esker antzema- ten diela hizkuntza guztiek elkarrekin dituzten ezaugarri bereizgarriak. Sortzetiko gramatika unibertsal horren laguntzaz, haurra ereduak ezarriz joango da entzu- ten duenari. Hizkuntza guztiek ezaugarri komun batzuk dituztela egia da, baina hori bezain egia da alde handiak daudela hizkuntzen artean gauzak adierazteko moduan. Haurrak ikasten dituen gauza askok bere xede-hizkuntzari dagozkio- nak izan behar dute. Hortaz, gramatika unibertsalaren edukia bi kategoriatan sailka daiteke: batetik, *printzipioak*, erabat unibertsalak, hizkuntza guztietan (edo ia guztietan) gertatzen direnak, eta, bestetik, *parametroak*, unibertsalak hauek ere, modu batean edo bestean hizkuntza guztietan gertatzen direnez.

Hizkuntzaren arloan gauzak Chomskyk nahi bezala gertatzen diren ala ez oraingoz eztabaidan jarri gabe, ba ote da moralaren arloan antzeko fenomenorik? Baietz uste du Hauserrek. Horren arabera, mintzaira-ahalmenaren kasuan gertatzen denaren antzera —hizkuntza asko eta desberdinak, baina printzipio unibertsal sail baten gainean eraikiak—, moraltasunaren kasuan ere kultura batetik bestera alde handiak daude sistema moraletan, begien bistako gauza dena; hala ere badago gramatika moral unibertsal bat, haur ba-koitzari, sistema moral posibleen artean, aukera mugatu bat baizik garatzen uzten ez diona (485 or.). Badira, beraz, arlo honetan ere sortzetiko printzipio eta parametroak. Horren aukerako adibidea urrezko araua izango litzateke (“Ez egin inori berak zuri egitea nahiko ez zenukeena”), ia-ia tradizio moral eta erlijioso guztietan aurki baitaitezke horren aldaerak (415 or.). Eta zer esan nahi du gramatika moral unibertsal batez hornituak omen gaudelako horrek? Bada, hauxe: “printzipio orokor baina abstraktu batzuk garatu ditugula gauza hauek erabakitzeke: zer dagoen debekaturik, zer den zilegi eta zer den nahitaez bete beharreko” (486 or.). Printzipio horiek, hala ere, ez dute zehazten gizarte-arauen edukia eta, printzipio eta parametro abstraktuak sortzetikoak badira ere, tokian tokiko gizarte-arauen edukia tokiko kulturatik jasotzen dira.

Gramatika moral unibertsalaren alde Hauserrek eskaintzen dituen frogen artean, psikologian “tranbiaren (edo trolebusaren) problema”² esaten zaion gogo-esperimentu morala nabarmentzen da beste guztien gainetik. Gogo-esperimentua da, zeren subjektuari hauxe bakarrik eskatzen baitzaio: bere iritzia ematea, “bai” edo “ez” erantzunez jarri zaion problema edo dilemari. Milaka lagunek problema horren aldaerei emandako erantzunak erabiltzen ditu autoreak. Hona horrelako problema bat. Eman dezagun tranbia bat errailen gainean doana. Gidariak, Malenek, bat-batean tranbiaren bidetik doazen bost bidazti ikusi ditu eta balaztatu nahi izan du, baina, hara, izuak hartu du ohartu denean balazta edo frenoak ez duela funtzionatzen. Bost lagun horien bizia salbatu nahi badu, gelditzen zaion aukera bakarra da bidez aldatzea, burdinbidez alegia, eta horrela harrapatzea eta hiltzea alboko bide horretatik doan pertsona bakarra. Ba al du Malenek bidez aldatzeko eskubiderik? Zer deritzazu? Jende gehienek, filosofo gehienak barne, “baitetz” erantzuten dute (148 eta 163 or.).

Interesa, aldaerak sartzan direnean sortzen du tranbiaren problemak. Hona aldaera horietako bat. Eman dezagun badoala tranbia bere bidetik bost bidaztienganantz. Oraingoan, ordea, gidaria ez da bidez aldatzeko gauza, baina tranbiak Asier begira dagoen zubiaren azpitik pasa behar du. Asierrek izango luke tranbia geldiarazterik, bere ondoan daukan gizon lodiarri bultza egin eta tranbiaren bidera botako balu, eta era horretan tranbiari bidea itxi.

² Problema hau Phillipa Foot emakume filosofoak jarria da, Hauserrek dioenez (147 or.).

Asierrek egin al dezake hori? Bota al dezake gizon lodia goitik behera bost bidatziei bizia salbatzeko? Zer deritzazu? “Ezetz” erantzuten baduzu, galdera hori egin zaien gehienek bezala erantzungo duzu (163 or.).

Jendearen erantzunetan egoera batetik bestera dagoen aldea interesgarria da, zeren, ondorioei dagokienez, ez baitago alderik: kasu batean nahiz bestean, bakarra da hiltzen dena, bost salbatzen direnak. Hala ere, lehenbiziko probleman % 90ek ontzat ematen zuen Malenek tranbia alboko bidera aldatzea, baina bigarrenean % 10ek bakarrik onartzen zuen Asierrek gizon lodia zubitik behera botatzea (*ibid.*). Bestalde, horrelako ikerketetan parte hartu zuten milaka lagunei galdetu zitzaientzen zergatik zen onargarria Malenen ekintza eta zergatik onartezina Asierrena, gehienek (% 70ek, Hauserrek aurreko orrialde horretan bertan esaten duenez) ezin izan zuten inolako azalpenik eman: ez zuten horrela erantzuteko izan zituzten arrazoien arrastorik ere. Nola esplikatuz, orduan, lehenbiziko kasuan judizio utilitarista, arreta ondorioetan jartzen duena, nagusi izatea eta bigarrenean judizio deontologikoa, arreta arauetan jartzen duena? Hizkuntzaren kasuan bezala (ezikasiak gai dira beren hizkuntzako esaldi bat zuzena den ala ez esateko, baina zergatik den hala esaten ez dakite), badirudi gramatika moral unibertsalaren printzipioek ihes egiten diotela kontzientziari.

Bada liburuan beste alderdi bat nabarmentzea merezi duena: filosofia moralari eskaintzen zaion lekua. Filosofia moralean judizio moralei buruz eratu diren teoriak aztertzen ditu hor autoreak. Hiru teoria bereizten ditu, horietako bakoitzari “sorkari” bat izendatuz: Kanten sorkaria (buruari hazka egiten dion irudi txiki batez irudikatua), Humeren sorkaria (bihotz handi bat erakusten duen irudi txiki batez irudikatua) eta Rawlsten sorkaria (burua ia dena begia den irudi txiki batez irudikatua). Kanten sorkariak balio unibertsala duen arau bat erabiltzen du, deliberatuki erabili ere, judizio moral bat sortzeko. Gezurrezko promesa, adibidez, ezin da lege unibertsal bihurtu; beraz, gezurrezko promesak egitea onartezina da moralaren aldetik (39 or.). Humeren sorkariak, aldiz, bestelako ikuspegia du: judizio moral munduko gertaera batek eragindako erantzun emozionalaren ondorio da funtsean. Esate baterako, pertsona bat aitzoz armatua eta haren oinetan gizon bat hila ikusteak emozio bat abiarazten du guregan eta, horrek, hilketa ekintza debekatuen sailean jartzera garamatza (73-74 or.).

Ez Kanten sorkariak, ez Humerenak, ezin dute argitu zergatik izan den izan den bezalakoa tranbiaren probleman aurkitu den emaitza. Egoera batek eta besteak emozio desberdinak eragin dituztela esaten bada, berehalako galdera da zergatik gertatu den hori. Era berean, kasu bateko ekintza arau unibertsal bihur daitekeela eta beste kasukoa ez esango balitz, zergatik? Hauserren iritziz, judizio moralak sortzerakoan gertatzen dena erabat harrapatzeko, hirugarren sorkaria, “Rawlsena”, sarrarazi behar da lehian. Egia esan, liburuan zehar etengabe aipatzen da John Rawls filosofoa. Harengandik hartzen duen ideia, gorago adierazi den bezala, honako hau da: judizio moralak oinarria duela hizkuntzarentzat

bezala unibertsalak eta inkontzienteak diren printzipio batzuetan. Beste bi sorkarietan ez bezala, ekintza bat edo gertaera bat ikusteak (tranbiaren problematan, adibidez) kausen eta ondorioen analisia abiarazten du eta analisi horretatik sortzen da judizio morala (75 or.). Tranbiaren problemaren aldaerei dagokienez, judizio moralak desberdinak izatea erraz esplikatzeko da orain: egiten den ekin-tzaren analisia ez da berdina bi kasuetan. Lehenbiziko kasuan, Malenek ez zuen bakarrik zihuan pertsona hura hiltzeko asmorik, ez zen aurrez ikusitako ondorio bat baizik; bost lagun salbatzea zen haren asmoa. Bigarren kasuan, aldiz, Asierrek gizon lodia erabiltzen du on handiago bat lortzeko. Rawlsen sorkaria-ren ikuspegitik, emozioen eta arazoibidearen egitekoa, egitekorik baldin ba-dute, judizio morala sortu ondoren hasten da, ez lehenago.

Hauserren arabera (41-47 or.), xx. mendeko psikologia moralean Piageten eta Kohlbergen pentsaera izan da nagusi, Kanten arazoibide kontzientearen tradizioari lotua zegoen pentsaera, hain zuzen ere. Gogor kritikatzeko dituen horien teoria moralak, batez ere bigarrenarena.

Liburua zertaz ari den esan ondoren, on izango da hona ekartzea horren iruzkingile batzuen iritziak. Egia esan, asko izan dira Hauserren lanari egin zaizkion iruzkinak, psikologoena batzuk, filosofoena gehienak. Iruzkinen ugari-tasuna adierazgarria da, horietako asko, gehienak esango nuke, autorearen teo-riaren aurrean aski kritiko ageri badira ere. Liburuan defendatzen den tesiarekin bat ez datozeneke ere gauza aipagarri franko aurkitzen dute hor; esate baterako, judizio moralen mekanismo psikologikoak azaltzeko orain arte egin den saio garrantzitsuena dela, psikologia moralari egin zaion ekarpen zientifiko nagusia dela, psikologia moralari eta horren garapenari buruzko ikerketa-lanen azal-pen zehatza eskaintzen duela, ideia akuilatzailetan aberatsa dela, eta abar. Bada esaten duenik liburua oso irakurterraza dela, baina baita kontrakoa dioenik ere. Ni neu adosago nago azken iritzi horrekin aurrekoarekin baino. Izan ere, ezin konta ahala esperimendu eta ikerketaren berri ematea aberasgarria izan daiteke, baina baita aspergarria ere horiek guztiak irakurtzea, batez ere oso garbi ikusten ez bada horietako askok zer lotura duten autorearen tesiarekin. Horri erantzen bazaio idazkera ez dela arina eta zalua, gaztelaniazko bertsioan nabarmen geldit-zen dena, kosta egiten zaio bati. Hala ere, berriz diot, liburuari iruzkin eta kri-tika asko eskaini izana horren garrantziaren adierazgarri da.

Aipatu ditudan iritziak liburuaren mamiari baino gehiago horren azaleko kontuei dagozkie. Kritika interesgarrienak, dudarik gabe, mamia ukitzen dutenak dira; eta, mamia esatean, autorearen tesia esan nahi dut, gramatika moral unibertsal batez hornituak jaiotzen garela dioena. Mereziko luke kri-tika horiek arretaz aztertzea, baina hemen ezinezkoa da hori egitea. Ea beste lanen batek heltzen dion kontu horri; gaiak merezi duela iruditzen zait. He-men, kritika nagusiak aipatuko ditut, aipatu besterik ez.

Hizkuntzaren eta moralitasunaren arteko analogia bera da kritika gehien hartzen duen puntua; iruzkingileak, gainera, arduratzen dira bi arloen arteko

ez-antzak bana-banaka aipatzeaz ere. Horietako bat honako hau da: hizkuntza sistema sortzailea da; moraltasuna, aldiz, ebaluazio-sistema. Analogia hori dela eta, Hauserrek, berak proposatzen duen gramatika moral unibertsalean, printzipioak eta parametroak bereizten ditu, Chomskyk hizkuntzaren gramatika unibertsalean egiten duen bezala, baina ez du behin ere zehazki esaten zertan dautzan gramatika moralaren printzipioak eta parametroak. Hauserren teoriaren beste alderdi bat kritika ugari jaso dituen natibismoa da, hau da, gizakia sortzetik beretik ahalmen moral baten jabe delako ideia. Judizio moralak eratzeko prozesuan emozioei aitortzen zaien zeregina da beste puntu eztabaidagarri bat: ba al dute hor zerikusirik emozioek eta, baietz uste bada, noiz hasten da horien lana? Hauserrek dio (ikus 75 or.) ezen, izatekotan ere, judizioa eratu ondoren hasten dela emozioen eginkizuna. Beste batzuentzat, ordea, gaitasun moralaren eta emozioaren artean ezin askatuzko lotura dago.

Harritzekoa bada ere, oso iruzkingile gutxik jartzen dute eztabaidan Chomskyren gramatika unibertsalaren hipotesia. Eta eztabaidagai dela diotenek ere, bestela bezala esaten dute hori. Rorty (2006: 2) filosofoak, adibidez, ez du hau besterik esaten: “Chomsky has argued, powerfully if not conclusively that...” (Chomskyk modu sinesgarrian, nahiz eta ez eztabaidaezinean, argudiatu du ezen ...). Sterelny (2007: 4) filosofoak, berriz, honela dio: “Though not everyone is convinced...” (Mundu guztia konbentziturik ez dagoen arren...). Analogia, hizkuntzaren eta moraltasunaren artekoa, zalantzan jartzen bada ere, analogiaren lehen osagaia sendo ezarritako teoriatzat-edo hartzen da nonbait. Hauserrentzat, noski, ongi finkatua dagoen zerbait da hori. Baina nekez esan daiteke hala denik. Edsten eta Richerson (2007) uste horren kontra ateratzen dira, esanez hizkuntzalaritzan bertan ere eztabaidatua izan dela eta dela sortzetiko gramatikaren ideia hori. Sterelnyk izen handiko bi eszeptiko aipatzen ditu: Cowie eta Tomasello. Azken honek asko ez dela adierazia du honako hau —eta honekin amaitutzat emango dut puntu hau—: “Kontua ez da sortzetiko eredu sintaktiko motaren baten eboluzioa, gramatika unibertsalarena adibidez, ezinezkoa dela, kontua da gaur egun ez dagoela horrentzat ez inolako ebidentzia enpirikorik, ez inolako formulazio teoriko zehatzik, ezta horren inolako beharrik ere” (Tomasello 2008: 313).

Ez dut lan hau bukatu nahi gaztelaniazko itzulpenaz neure iritzia eman gabe. Itzulpena ez da ona. Itzulpen askoz ere zainduagoa merezi zuen liburuak. Horren erakuskari hiruzpalau adibide ekarriko ditut hona. Hasteko, liburuaren hasiera-hasieran, hitzaurrearen lehen orrialdean, Steven Pinkerren *The language instinct* liburuaren izena honela dago itzulita: *El instituto del lenguaje*. Errua ez da beharbada itzultzailearena izango, baina norbaitena bada, eta ez txikia. Ondoren aipatuko ditudan hutsegiteak, bai, itzultzailearenak dira dudarik gabe. Hara zer irakur daitekeen 489. orrialdean: “...los padres nunca dicen: ‘Fui al mercado’...”. Egia ote? Zergatik ez ote dute esan behar hori? Ingelesezko bertsiora jo eta hara zer esaten den han: “...parents never say ‘I goed to the market’...”. Orain bai, orain garbi dago zer gertatu den. In-

gelesez *go* aditza irregularra da eta horren lehenaldia *went* da, ez **goed*. Auto-reak hor esan nahi diguna da gurasoek hitz hori ez erabili arren, haurrek *go* aditza erregular bihurtu eta **goed* erabiltzera jotzen dutela hasieran. Hori gaztelaniara itzultzeak egokitzea eskatzen zuen, “Fui al mercado” esan ordez, “Esté en el mercado” esanez, adibidez. Era horretan, *esté* erregularra baina ez-zuzena *estuve* irregular baina zuzenaren ordez jarriz, autoreak hor adierazi nahi izan duenari eutsiko litzaioke. 76. orrialdean honako hau irakur daiteke: “Nuestras formulaciones más obvias de reglas universales puede que no logren captar los principios que forman parte de nuestra facultad lingüística”. Hor aipatzen diren arau unibertsalak arau moralak dira, aurreko esaldia kontuan hartuta ez dago dudarik; orduan, zer dela eta atzeman behar dituzte arau moralek mintzatzeko ahalmenaren printzipioak? Ingelesezko testuan argi geratzen da autoreak esan nahi izan duena: “Our more commonsense formulations of universal rules may fail to capture the mind’s computations in the same way that grammar-school grammar fails to capture the principles that are part of our language faculty”. Beraz, (lehen hezkuntzako) eskolako gramatikak ez ditu harrapatzen gure mintzaira-ahalmenaren printzipioak; bada, antzeko zerbait gerta daiteke zentzu komunekoak diruditen gure arau unibertsalen formulazioekin ere, hots, hauek ez harrapatzea gogamenaren konputazioak. Hori da Hauserrek dioena. Kahneman eta Tverskyren “prospect theory” delakoa “teoría de la prospección”³ bezala itzuli da (122. or.), gaztelaniaz aspaldi samarretik “teoría de la perspectiva” esaten denean. Goazen azken adibidera, gauza gehiago esaterik egongo balitz ere. Autoreak diotenaren kontrakoa esaten du 354. orrialdeko esaldi batek. Gaztelaniaz: “...la criatura rawlsiana no está diseñada para producir múltiples sistemas morales”. Ingelesez: “...the temperate Rawlsian creature was not designed to produce a singular morality. Rather, it was designed to produce multiple moral systems”. Beraz, sistema moral asko sortzeko diseinatua izan zen Rawlsen sorkaria. Hori esan nahi izan du autoreak, eta ez gaztelaniazko itzulpenak dioena. Luze samarra atera zait azken paragrafo hau, baina barkatuko ahal dit irakurleak. Gaztelaniazko itzulpena, bazuetan behinik behin, ez dela fidagarria ohartarazi nahi izan diot.

Pello Huizi

ILCLI (UPV/EHU)

Erreferentziak

EDSTEIN, Edward eta Peter J. RICHERSON. 2007. “Principles-and-parameters redux”. *American Scientist* (online) (<http://www.wjh.harvard.edu/~mnkylab/publications/books/AmericanScientistJan-Feb07MoralMinds.pdf>).

³ Nik dakidala, *prospect* aditzak bai, baina *prospect* izenak ez du zerikusirik prospekzioaren ideiarekin.

- GIGERENZER, Gerd. 2008. *Decisiones inconscientes. La inteligencia del inconsciente*. Barcelona: Ariel. (Jatorrizkoa, ingelesez, *Gut feelings* izenburuarekin, 2007koa da.)
- RORTY, Richard. 2006. "Born to be good". *The New York Times* (<http://www.nytimes.com/2006/08/27/books/review/Rorty.t.html>).
- STERELNY, Kim. 2007. "Moral nativism: A sceptical response" (<http://www.tempoand-mode.com/wp-content/uploads/2007/12/ks-moralnativismv3.pdf>).
- TOMASELLO, Michael. 2008. *Origins of human communication*. Cambridge, MA: MIT.